

## » ERANTZUNKIDEA

- » Gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna: zaintza lanak modu justuan banatu
- » Lanaldia modu orokorrean murriztu kontziliazioa hobetzeko
- » Zaintzarako baimen kopuruak handitu eta hobetu

## » PUBLIKOA

- » Zerbitzu publikoak hedatu
- » Azpikontrataturako sektoreak publikatu
- » Profesionalizatutako zaintza lanak desmerkantilizatu

## ZAINTZA SISTEMA

## » DOAKOA

- » Kopagoa ezabatu
- » Zergen bitartez finantzatu

## » UNIBERTSALA

- » Menpekotasun egoeran dauden pertsonen behar guztiak legez bermatu

## » KALITATEZKOA

- » Ratioak eta ematen diren orduak nabarmen hobetu; 10.000 lanpostu berri sortu
- » Lanaldia %100era handitu (langileak kontrako eskaerarik egiten ez badu)
- » Subrogazioa bermatu eta lanpostuak kontsolidatu
- » Bajak lehen egunetik aurrera bete
- » Lan osasuna hobetu (arrisku psikosozialak eta biologikoak)
- » Berreskurapen emozionala lortzeko planak aurkeztu
- » Zaintzaile guztiak erregularizatu (Atzerritartasun legea indargabetu)
- » Ikuskaritza baliabideak handitu eta hobetu
- » Soldata arrakalarekin amaitu
- » Errelebo kontratu orokorrak hedatu


## ZERGA ERREFORMA

- » Neurri guzti hauek gastu publikoa handitzea suposatzen du, beraz, beharrezkoa da diru-bilketa handitzea.
- » Kapital, enpresen etekinak eta errenta altuen zergak nabarmen igo.

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

**FEMINISTAK GARELAKO**  
**ZAINTZA PUBLIKOAREN ALDE**  
**CUIDAR(NOS) ES COLECTIVO**



# FEMINISTAK GARELAKO ZAINZA PUBLIKOAREN ALDE!

Bizitzari eusten dioten lanak, zaintza lanak, gutxietsiak eta ikusezinak dira gure jendaratean, nahiz eta, Euskal Herrian egiten diren lanordu guztien artean, ordainduak zein ordaindu gabeak, %61a zaintza lanak diren.

Zaintza lanak gainera, bereziki emakumeen bizkarretan jauzten dira. Emakumeoi zaintzailearen rola egotzi izan zaigu. “Amodioagatik” zaintzera kondenatuz, miserizko baldintzetan.

***Sexuaren arabera lanaren banaketa iraultzeko, goaz grebara!***

Zaintza lanak modu justuan banatzea urgentziazkoa da, eta horretarako gizonek euren zaintza ardurei eustea beharrezkoa da. Baina horretaz gain, enpleguari eskaintzen dizkiogun lanorduen murrizketa orokorra ere premiazkoa da.

***Lan egin bizitzeko eta ez bizi lan egiteko!***

## AZAROAK

# 30

## GREBA OROKORRA

Zaintza lan profesionalizatuen arloan, merkantilizazioa da nagusi. Irabazi-asmoa gailentzen da pertsonen ongizatearen aurretik. Egun pertsona zaurgarrienei (adinekoak, menpekotasun egoeran daudenak, aniztasun funtzionala dutenak, gizarte bazterketan daudenak...) zuzendutako zerbitzuen ia guztia azpikontratatuta dago, eta hori izan da pribatizatorako eta prekarizatzeko gure instituzioek erabili duten biderik eraginkorrena. Hego Euskal Herrian, adibidez erresidentzia guztien %12a soilik da kudeaketa publikokoa. Administrazio publikoak ere beraz, patronal pribatizatzaile eta prekarizatzaile moduan jokatzen du: Udal, Aldundi eta nola ez, Eusko Jaurlaritza eta Nafar Gobernuak.

***Guzti honengatik, zaintza sare publiko, unibertsal eta doakoa behar dugu, lanen birbanaketa justuago batekin batera!***